

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,
UDAL JABARI PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA USTIAPEN BEREZIARI DAGOZKION
TASAK ARAUTZEKO ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkezten ditu araua aldatzeko ondoko proposamenak, helburu izanik ingurumena zaintzea, larrialdi klimatikoko eta energia krisiko testuinguruarekin bat etorrira:

Aldatzea jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatik tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren eranskina, **2. atalaren C) letrako 1, 2, 3, 4.a eta 4.b puntuei** honakoa GEHITUTA:

Udal zoru publikoa baliatzen duten terrazei % 25 igoko zaie kuota, gasezko berogailuak edo berogailu elektrikoak erabiltzen badituzte terrazak berotzeko.

Donostian, 2023ko abuztuaren 3an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea